

# "HAY QUE SEMBRAR EL TERROR"

Estatu golpearekin batera alde zurretik diseinaturiko bortizkeria eta terrore bolada zabaldu zuten agintari berriek. Erresistentzia geldiarazi, eta aldi berean gizartea "garbitu" nahi izan zuten, aurreko urteotako arrasto eta memoria guztia ezabatuz. Horregatik izan zen errepresioa hain anker, zabal eta sistematikoa, Errepublikaren aldean zabaldu zena baino askoz hedatuagoa.

Kopuruak oso adierazgarriak dira. Politizidio argia martxan jarri zuten, gerra eta gerraondoko urteotan 150.000 pertsona inguru fusilatuz, eta gizartearen zati handi bat espetxe, erbeste eta umilazioen bidez isilaraziz. Gainera, gizarte zibila ere gerra helburua izan zen, hirien eta errefuxiatu karabanen kontrako bonbardaketa masiboekin.

Errepresio hau poliki-poliki burokraziaren bidez antolatu zuten 1936ko bukaeratik aurrera, eta 1937ko maiatzean Prisioneroen Kontzentrazio Eremuen Ikuskaritza (ICCP delakoa) sortzen da. Ordutik, milaka prisionero, milioi erdi inguru, kontzentrazio eremu hauetan giltzapeturik eta beren sorterrik bidalitako informe politikoen arabera sailkaturik izan ziren.



Prisioneroen atxiloteta  
Lagunak: Euzko Kultur Taldea



Gerra, gurutza saindua Elizaren arabera. Conde de Rodezno, Gamá kardenata eta Moscardó generala. Toledo  
Lagunak: Altzafaylla Kultur Taldea

## Testigantzak

### Mola Generala

Izua zabaldu behar da, nagusitasuna erakutsi behar da gurekin bat ez dagoen guztiak akatuz, inongo zantzarik edo beldurrik izan gabe.

Iturria: J. Iturralde, *El catolicismo y la cruzada de Franco*, 1960, Egi-Indarra.

### Queipo de Llano

Gure legionario eta soldadu ausartek gizon bat zer den irakatsi diete gorrii. Bide batez, gorrien emakumeei ere benetako gizonak zeintzuk diren irakatsi zaie, eta ez miliziano zikiratuak. Ostikadek eta orroa egiteak ez die deusetarako balio izango.

Iturria: M. Barrios, *El último virrey. Queipo de Llano*, 1978, Argos/Vergara.

### Pilar Lamberto

(Larraga, Nafarroa)

Nire aitari altxatzeko esan ziotenean, nire ahizpak, nirekin ohean zegoelarik, nora eramaten zuten galde-tu zien. "Udaletxera eraman behar dugu, galdeketa egitera" (...) Maravillas ohetik altxatu, jantzi eta haiekin joan zen. Nire aita kartzelan sartu zuten, udaletxearen behealdean, eta ahizpa gora igo zuten. Eta hantxe borxatu zuten guzti horiek, eta nahi izan zuten guztia egin zuten berarekin (...). Kaltea eginda, ezin zuten horrela utzi, berarekin egindako astakeria guztiak kontaktuko zituela beldur baitziren. Horregatik hil zuten.

Iturria: Altzafaylla Kultur Taldea, *Nafarroa 1936, de la esperanza al terror*, 2003, Altzafaylla.

Nafarroako Iratze Monastegiko kontzentrazio eremuak plano  
Iturria: Archivo General Militar de Avila, CGU, Cz, 46 bis, 0.11, 1.25, 1.3, C.M., M. de Defensa

## ESKLABOTZA FRANKISMOAN: ERREPIDEAK ETA FORTIFIKAZIOAK MENDEBALDEKO PIRINIOAN

### 1. Esklabotza sare zabala

